

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ENTITATEEN KONTUEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2014

EUSKAL TOKI ENTITATEETAKO KONTUETAN LEGEZKOTASUNA NEURRI HANDIAN BETE DA ETA FINANTZA EGOERA OSASUNTSUA ERAKUSTEN DUTE.

Zorpetzeak eta biztanleko batez besteko gastuak beheranzko joerari eusten dio

Joan den urriaren 27an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onetsi zuten Euskadiko Toki Entitateen 2014ko ekitaldiko Kontuei buruzko txostena.

43 udaletan eta udalaz gaindiko 14 entitatetan (38 eta 17, hurrenez hurren, 2013an) ez da hutsik azaleratu ez Kontu Orokorra onartzeko epeetan, ez eduki formal eta kualitatiboan ere.

URTEKO KONTUEN EDUKIA

HKEEk EAEko 251 udalen eta 64 udalaz gaindiko erakundeen Kontu Orokorren eduki formala balio-neurtu du eta informatzeko betebeharrari dagokionez legeria zein mailatan betetzen den egiaztatu du. Horrezaz gain, aurrekontuko likidazioek, balantzeek eta galera eta irabazien kontuek ezargarria den araudiak eskatzen duen informazio guztia besarkatzen dutela egiaztatu da eta agiri hauek elkarren artean koherenteak direla.

34 udaletan eta udalaz gaindiko 8 erakundetan ondotik zehaztutako **agirietakoren bat ez dutela jaso** ikusi da: finantzaketa taula, udal-zorrari buruzko informazioa eta/edo oroitidazkia. Udal 1en eta udalaz gaindiko 3 erakunderen urteko kontuetan, gainera, ez dago ez balantzerik, ez emaitzen konturik. Udalaz gaindiko 2 erakundetan diruzaintza kontua falta da.

17 udaletan eta udalaz gaindiko 8 erakundetan kontu orokorrak **akatsak** ditu **aurrekontuko alderdietan**, batik bat, diruzaintza geldikina oker kalkulatu izana.

Ondare kontabilitateari dagokionez, berriz, **akatsak** azaleratu dira 95 udaletan eta udalaz gaindiko 16 erakundetan; ohikoenak amortizazioa ez jaso izana edo zorraren eranskina eta balantzea bat ez etortzea.

Akats hauek nagusiki 5.000 biztanletik beherako udalei dagozkie.

ONESPEN EPEAK

HKEEk atzerapenak atzeman ditu urteko aurrekontua onestean (158 udaletan eta udalaz gaindiko 25 erakundetan), aurrekontuaren likidazioa onestean (16 udaletan eta udalaz gaindiko 7 erakundetan) edo kontu orokorra onestean (69 udaletan eta udalaz gaindiko 16 erakundetan)

12 udaletan eta udalaz gaindiko 3 erakundetan aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu ziren.

Ez dago jasota Kontu Orokorra onartu denik 9 udaletan eta udalaz gaindiko 10 erakundetan.

TOKIKO SEKTOREAREN FINANTZA EGOERA

2012ko abenduaren 31n, 32 udalek eta udalaz gaindiko 3 erakundek geldikin negatiboa zuten (defizita). Horietatik 16 udalek eta udalaz gaindiko erakunde 1ek defizit hori berdindu dute, dela gastua murriztuta, dela geldikin positiboak eskuratuta edo maileguak kontratatuta. Gainerakoek defizit egoeran jarraitzen dute 2014ko abenduaren 31n.

Euskal **udalen** autonomia fiskalak (zerga zuzen, zeharkako, tasa eta sarrera guztien gaineko bestelako sarreren kontzeptuko diru-sarrerak) % 39,82 egin du 2014an. **Biztanleko gastuak** 1.274 euroren batez bestekoa egin du (1.237 euro 2013an). **Biztanleko batez besteko zorpetzea** 249 eurorena izan da (2013an baino % 8,1 txikiagoa) eta horrek udal sarrera arrunten % 20 egiten du. Guztira 84 udalek ez dute zorpetzerik eta 20 udalek, berriz, biztanleko baliatutako zorraren batez bestekoa nabarmen gaitzen dute.

Udalaz gaindiko erakundeen zorpetzea 564 milioi eurorena da (2012an baino % 4 txikiagoa) eta hortik % 85 Bizkaiko Garraio partzuergoaren jabetzakoa da. Diru-laguntza kontzeptuan eskuratutako diru-sarrek bere sarrera guztien gainean % 43,57 egin dute.

KONTUAK EZ AITORTZEA

Txostenak adierazi du ez Ondarroako Udalak ez udalaz gaindiko 4 erakundek (Iruña Okako Uren Partzuergoak, Haranako Uren Partzuergoak, Debade Udal Euskaltegien Mankomunitateak eta Uli Mankomunitateak) ez dutela 2014ko ekitaldiko kontu orokorra HKEEra igorri. Gainera, Kuartengoko Uren Partzuergoko kontuen egiturak ez

dira indarreko legedian finkatutakoarekiko egitura bateragarriak. Ekialdeko Lautadako Uren Partzuergoak ez du jarduera abiarazi.